



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

ETXEPARE

1. Literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak 2
2. Irabazi asmorik gabeko Kultur Jardueretako dirulaguntzak 3
3. Euskal etxeentzako dirulaguntzak, euskara-ikastaroengatik..... 5
4. Euskal kultura zabaltzeko, sortzaileen mugikortasuna sustatzeko dirulaguntzak: arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza eta antzerkia 6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak

2.- Araua

2023ko martxoaren 10eko Ebazpena, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2023an literatura-itzulpenetarako dirulaguntzak emateko modua arautzen duen deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa, argitaratzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da ondorengo itzulpen-jarduerak diruz laguntzea:

- a) Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura-obrak edozein hizkuntzatarara itzultzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan errolatutako idazleek jatorriz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako literatura-obrak euskara ez den beste edozein hizkuntzatarara itzultzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerranda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

23 itzulpen-proiektu lagundu dira diruz, eta aurkeztutako proiektuen estaldura-maila % 85,19koa izan da. Diru-zuzkidura 63.000 €-koa izan bada ere, 33.209,75 € esleitu dira, eta beraz, aurrekontuaren % 52,38 gauzatu da. Aurrekonturen zati adierazgarri bat ez gauzatzearen arrazoi nagusia izan da deialdira aurkeztutako lanen % 69,56 haur eta gazte literaturako lanak izatea. Izan ere, emandako dirulaguntzak itzulpen-proiektuen karaktere kopuruaren araberakoa da hein handi batean eta haur eta gazte literaturako lanen karaktere kopuru txikiak izaten dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurrekontuaren gauzatze-maila	%100	% 52,38
Diruz lagundutako itzulpen-proiektuak	20-25	23
Jatorriz euskaraz idatzitako lanen itzulpen-proiektuak	15-20	16



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Irabazi asmorik gabeko Kultur Jardueretako dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko apirilaren 26koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2023an euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko irabazi asmorik gabeko jarduerak euskararen eremu geografikotik kanpo garatzeko dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen deialdia, Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia

Ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal kultura sustatzeko eta hedatzeko irabazi asmorik gabeko jarduera eta proiektuak 2023. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo burutzeko dirulaguntzak ematea.

Ebazpen honen babesean aurkeztuko diren jarduerak 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean garatu beharko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

14 proiektu lagundu dira diruz, egondako 20 eskaeren artean. Aurkeztutako proiektuen estaldura-maila % 70ekoa izan da. Diru-zuzkidura 30.000 €-koa izan bada ere, 19.386 € esleitu dira, eta beraz, aurrekontuaren % 65 gauzatu da. Aurrekonturen zati adierazgarri bat ez gauzatzearen arrazoi nagusia izan da deialdira aurkeztutako proiektu batzuk ez zituztela baldintzak betetzen (4), eskatzaile batek atzera egin zuela (1), edo Balorazio Batzordeak nahikoa puntu ez ziola eman lagundua izateko (1).

2023ko deialdiaren balorazioan ikusi dugu deialdi hau kaleratzea positiboa izan dela, Etxepareren euskara eta euskal kultura nazioartean zabaltzeko helburuarekin bat datozen 14 proiektu lagundu ahal izan ditugulako, deialdi hau kaleratuko ez bagenu laguntzarik jasoko ez luketenak, dantza talde tradizionalen, abesbatzen, eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuen proiektuek ez dutelako lekuri Etxepare Institutuaren gainontzeko dirulaguntza deialdietan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aurrekontuaren gauzatzeko-maila	%100	% 70
Diruz lagundutako itzulpen-proiektuak	15/20	14
Euskarazko lagundutako proiektuak	5/10	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal etxeentzako dirulaguntzak, euskara-ikastaroengatik

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko irailaren 20koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia, euskal etxeei dirulaguntzak emateko, 2023ko urritik 2024ko irailera arteko euskara-ikastaroengatik

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

EBAZPENA, 2023ko irailaren 20koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia, euskal etxeei dirulaguntzak emateko, 2023ko urritik 2024ko irailera arteko euskara-ikastaroengatik.

EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 10ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2022-2023 ikasturtean emango diren euskara-ikastaroetarako euskal etxeen dirulaguntzak ebazten dituen.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal etxeetako euskara-ikastaroak finantzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta baliagarritasuna eta inpaktu soziala. (Era berean, dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta gutxitutako kolektiboen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

21.352 ordu eman dira, eta 1.638 ikasle.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ez da adierazlerik ezarri	--	--



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal kultura zabaltzeko, sortzaileen mugikortasuna sustatzeko dirulaguntzak: arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza eta antzerkia

2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 14koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita, 2023an euskal kultura kanpoan zabaltzeko, arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza, eta antzerki arloko sortzaileen mugikortasuna sustatzeko diru-laguntzak emateko deialdia, Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia

Emate-ebazpena: Musika, Arte Plastiko eta Ikusizkoak, Dantza, Antzerkia

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Kultura bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adieramoldetan kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta hedatuz.

Helburu zehatza honakoa da: arte plastiko eta ikusizkoak, musika, dantza, eta antzerki arloko sortzaileen kanpoko ekimenez laguntzea, mugikortasun gastuetarako dirulaguntza emanez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerranda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Emaitzak - Eskatzaileak eta laguntza jaso dutenak:

Arte plastikoak: 55 eskatzaile, 38 lagundu (%69,09)

Musika: 55 eskatzaile, 39 lagundu (%70,90)

Dantza: 23 eskatzaile, 21 lagundu (%91,30)

Antzerkia: 54 eskatzaile, 46 lagundu (%85,18)

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak:

Aurkeztu diren eskaerak baloratzeko eta puntuatzeko ezarrita dauden irizpideen artean, berdintasuna sustatzeko neurriak txertatuta daude. Gisa horretan, ezartzen diren puntuetako batzuk, honakoa baloratzen dute:

- Emakumeek presentzia aurkeztutako proiektuan
- Berdintasunaren aldeko lanketa aurkeztutako proiektuan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurrekontuaren gauzatze maila	%100	%100
Diruz lagundutako proiektuak (4 diziplinetan)	95	144